



## **TABAKALERA-CHILLIDA LEKU. ARTEA ETA PAISAIA EGONALDIA 2024 DEIALDIAREN EBAZPENA**

2024ko otsailaren 12an, Tabakalera – Chillida Leku. Artea eta Paisaia egonaldia 2024 egonaldiaren deialdia argitaratu zen Tabakaleraren webgunean, arte departamentuaren bidez, Chillida Lekuren (Hauser & Wirth San Sebastián) eta Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroaren artean egonaldi artistiko bat eskaintzeko helburuarekin.

Aipatutako oinarrien 4. atalean aurreikusitakoarekin bat etorritik, batzorde bat eratu zen, Ane Agirre (Tabakalera), Laida Mendia (Tabakalera), Mireia Massagué (Chillida Leku) eta Nausica Sánchez-ek (Chillida Leku), deialdian jasotako izen-emateak baloratzeko.

Batzordeak garaiz eta behar bezala aurkeztutako proiektuen balorazioa egin du, egonaldia lortu nahi duten proiektuak hautatzeko oinarrietan ezarritako irizpideekin bat etorritik, eta CICC/Tabakalerako zuzendari nagusiak, aipatutako batzordeak proposatuta, honako hau

### **EBATZI DU:**

**Lehenengoa.-** I. eranskineko taulan zerrendatutako pertsonak deialdian parte hartzeko aurkeztutako proiektua hautatzea, deialdiaren oinarrietan jasotako baldintzetan.

**Bigarrena.-** Hautatutako proiektuari honakoa ematea:

1. Joan-etorriko bidaia, artistaren bizilekutik edo egoitza egin aurretik dagoen lekutik, adjudikaziodunaren borondatez.
2. Aseguru medikoa, egonaldiak iraun bitartean.
3. Apartamentua, erabat hornitua (sukaldea, bainugela eta logela, lanerako gune txiki batekin, Internetarako sarbidea wifiarekin), Tabakalera.
4. Lan-estudioa Tabakalerako Artisten Gunean. Horretarako, Tabakalerak ezaugarri desberdinetako estudioak ditu, hornidura hauekin: oinarritzko altzariak, ur-hartunea hurbil, korrante elektrikoa, argiztapena eta Internetarako sarbidea wifiarekin. Estudioa aukeratutako proiektuaren ezaugarriak kontuan hartuta egokituko da.
5. Tabakalerako baliabide guztietarako sarbidea, bai eta Medialaben baliabide eta funtsetara sartzeko aukera ere.
6. Chillida Lekuko instalazioetarako sarbidea egonaldiak iraun bitartean.
7. 2.000 € (1.000 € egonaldiko hilabete bakoitzeko, zergak eta atxikipenak salbuetsita), dieta eta mantenuaren kontzeptuan, egoitzak iraungo dituen 8 asteetarako.



8. Gehienez 1.500 €-ko zuzkidura ekonomikoa egoitzaren esparruan proiektua garatzeko; horretarako, aldez aurretik aurrekontua aurkeztu eta onartu beharko da.
9. Proiektuaren garapenean laguntza kontzeptual eta artistikoa, bai eta laguntza ere testuinguruko eragile eta proiektuetara helarazteko, egoiliarrek hala eskatzen badu.

**Hirugarrena.**- Ebazpen hau Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, S.A.ren webgunean argitaratzea eta aukeratuei jakinaraztea.

Donostian, 2024ko ekainaren 3an

Edurne Ormazabal Azpiroz  
Zuzendari nagusia

## ANEXO I

<b>IZENA</b>	<b>ABIZENAK</b>
Cesare	Botti